

baileike

2003ko URTARRILA,
107. ZENB. DOHAINIK



Lucia Lacarra

Zumaiarra da munduko dantzari onena
BALEIKEn egon da gurekin solasean



Txapapotea

ARRANTZALEEN ETORKIZUNA
KOLOKAN

txotx!

baleike



HAUXE DA aurtengo lehen Baleike!!
Gozo-gozoa!!
Zapore bikainekoa!!
Nahi baduzue tente irakurri edo eserita.
Zeuek aukeratu.
Ze berri jartzen duen
upeletik hasia modu egokia dela uste dugu. Oraingoan txarretik hasiko gara, **Zumaiara** ere iritsi delako fuela. Egoera eta gertakari triste hori ahazteko Bertso Eskolaren historia biltzen duen liburua irakurtzea gomendatzen dizuegu.
Edo bestela, hango upelera jo eta Lucia Lacarrak *jardunian* kontatu



dizkigunak irakurri, merezi du eta. Marka da gero, baina fuel madarikatu hori (edo fuela isurtzen eta zabaltzen laga duten madarikatuak esanda, akaso hobeto) gaineratik kendu ezinda gabilta. *Ur haunditan* dabil batera eta bestera, haizea nora fuela hara, eta bide batez, gure arrantzaleen etorkizuna belztuz eta ilunduz. Portugal aldera ere iritsi omen da. Hango berri jakiteko *aluga se* upeletik tragoxka bat egitea baino modu egokiagorik ez da. Jatorduarekin aurrera eginda, aurretik *izerdi patsetan* egonda Baleike hobeto sartzen omen da. **Euskal Herriko futbol selekzioarekin** urtero egiten dugu amets, eta beti garai beretsuan.



Aurrera egin eta eskuinetara begiratuta *zarrak berri* aurkituko duzue. Nostalgiko ipinita horixe da gure upelik maitagarriena. Oraingoan **aspaldiko neguen** berri izango duzue. Haiek bai neguak!!
On egin, eta beldurrik gabe irakurri!!
Hori bai, gero kontuz gidatzerakoan!!

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
faxa: 943 86 17 42
email:
baleike@topagunea.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

Administrazio batzordea

Esther Etxeberria
Xabier Azkue

Erredakzio batzordea

Ibon Manterola
Eneko Dorronsoro
Itxaso Ibarra

Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Aitor Manterola

Kazetariak

Eneko Dorronsoro
Ibon Manterola
Itxaso Ibarra
Aitor Manterola
Gurenda Serrano

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet,
Dani Carballo, Inaxio Tolosa,
Belen Golmaio,
Izaga Garzia, Koldo
Landaluze,

Beñat Fernandez de
Arroyabe,
Ihintz Linazisoro, Egoitz
Lizaso, Garikoitz Telleria,
Natur Taldea

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Baleike

Publizitatea

943 86 15 45 tel. (Esther)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua
SS-405/94

ISSN

1136-8594

Argazkilaria:

Eva Franco

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Argitalpen honen edizioako laguntzaile:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte-ekintza
obra social



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

IKUR FAXISTAK KANPORA

ZUMAIAKO GAZTE ERAKUNDE INDEPENDENTISTA ETA SOZIALISTA

2002ko abenduaren 23an gazteak kalera irten ginen Zumaian oraindik gelditzen ziren ikur frankistak kentzeko. Basadi eta Aita Mari auzoetan Franko garaiko plaka ugari zeuden jarrita (22 hain zuzen ere) hainbat etxebizitza bloketan; 50eko hamarkadan Erregimen Frankistaren Etxebizitza Ministerioak jarritako plaka, alegia.

Plakak kentzearen intsumisio ekintza honekin, Euskal Herriak 40 urtetan jasan izan duen zapalkuntza eta sufrimenduaren (heriotzak, kartzela zigor injustifikatuak, torturak, euskararen zapalkuntza...) aztarnak ezabatu nahi izan ditugu Zumaiaitik.

Bestalde, Zumaiaiko Udalaren jarrera ere salatu nahi dugu, hainbeste urtetan ezikusiarena egitegatik. Ez al dira gogoratzen PNVko militanteak erregimen faxistaren garaian zenbat sufritu zuten?

IKUR FRANKISTEI INTSUMISIOA!



Zuhaitza, haurra eta liburua...

Eta zer?




Eguzki Agirrezabalaga

URTE BERRI baten atarian, atzean utzitakoaren balantzea eta abenduaren azken eguneko gauerdiko kanpai hotsen erritmoan mahats aleak estutasunez irentsiz estreinatutako duenaren aurreikuspen futuristak egiteko ohitura omen dute zenbaitzuek, ilusio goseak joka akaso.

Esperantza inoiz ez dela galdu behar pentsatzen duen horietakoa naizen arren, orain arte behintzat nik ez dut horrelakorik egin, 365 eguneko epea luzea, egia esan luzeegia, iruditzen zaidalako planak egiteko, batez ere gure herri honetan ez ezik –eta ez naiz Zumaiaz soilik ari, Euskal Herri osoaz baizik– bakoitzaren etxean ere egunetik egunera bat-batean gauzak nola aldatzen diren kontuan izaki.

Iaz ere ez nion inolako helburu berezirik ezarri neure buruari, baina konturatu orduko, gure gizarteak ezarritako arauen arabera erabat "errealizatu-ta" sentitzeko emakume batek bete behar omen dituen hiru baldintzak "bete" ditut: haur bat erditu, liburu bat idatzi eta zuhaitz bat landatu. (Portzieto, ez nekien Udalak pegoa bidaltzen zuenik jaioberri guztien etxeetara). Ezin esan, beraz, urte oparoa izan ez denik, baina aitortu behar dut gaur ez naizela iaz baino "errealizatuago" sentitzen, hau da aurten bezain "errealizatu-ta" sentitzen nintzela iaz edo, hobe esanda, ez dudala uste hiru baldintza horietara mugatzen denik emakume baten ditzosozko "errealizazioa" (eskerrak gorrotoa diodala hitz horri. Bestela...)

Beno, eta orain utzi egin bahar zaitutzet haurra bainatu behar dudalako, baina, hori bai, inprentatik iritsi berri den liburua gainbegiratu ondoren eta leihoaz bestaldean ikusten dudana pagoaren hosto lehorren ur egarria asetu ondoren.



Berandu bada ere... urte berri on!

HITZ HAUEK inprimategitik ateratzerako berandu xamar izan badaiteke ere, Urte Berri on guztioi!

Topikoa bada ere, eta zeharo gastatuta baldin badago ere... URTE BERRI ON!

Batzuetan hipokresiaz esaten badugu ere... URTE BERRI ON guztioi!

Guztioi, bai, baina bereziki urte berri honetan lehen bezalatsu sufritzen eta ahaztuta jarraituko dutenei, URTE BERRI ON!; "Zer moduz?" galdetzean "ondo" esan arren beren etxeetan bikotekidearen tratu txarrak jasotzen segituko duten emakumeei, URTE BERRI ON!; gaixotasunen ondorioz burua altxatu ezinik dabilatzanei, URTE BERRI ON!; zaharren egoitzetan bisitaren baten gose-egarriz daudden adineko pertsona guztiei, URTE BERRI ON!; Iruñean polizien egurra jaso zuten etorkin kolonbiar guztiei URTE BERRI ON!, eta beraiek bezala, gure harritzko harresi txuri eder hauek gainditu dituztelako bazterketa pairatzen ari diren etorkin guztiei URTE BERRI ON!; Baita gure aberastasunaren ondorioz Afrikan, Asian eta Hego Amerikan gosea, gerra eta izurriteak pairatzen ari direnei ere, URTE BERRI ON! Munduko zortetik onena eta laguntza merezi eta beharko duen Lula presidente brasildarrari eta bere herriko txiro uga-

riei ere, URTE BERRI ON! Galizian etorkizunik gabe geratu diren errugabe ugariei, URTE BERRI ON!; Iraken eta beste leku askotan bidegabeko inbasio eta sufrimenduak pairatuko dituzten guztiei, URTE BERRI ON!

Eta geurera itzuliz, URTE BERRI ON geure etxeko gatazken ondorioz sufritzen jarraituko duten guztiei! Etxean hildakoak ahaztu ezingo dituzten guzti-guztiei URTE BERRI ON!; oraindik bidean bonben, tiroen edo bestelakoen ondorioz eroriko diren guztiei, URTE BERRI ON!; askatasunaren izenean askatasuna betirako galduko dutenei, URTE BERRI ON!; mehatxuak, torturak, jipoiak eta bestelako tratu txarrak jasoko dituztenei URTE BERRI ON!; "iraultzailea" omen den zergaren mehatxua jaso eta isilpean gorde beharko duten guztiei, URTE BERRI ON!; aukera politikorik gabe gera daitezkeen guzti-guztiei URTE BERRI ON!;

Izan dadila, beraz, aurrekoa baino hobea guzti-guztiontzat, eta eman diezaiogun aukera bat guk ere URTE BERRIARI!



Joseba Ossa

EZ HORREGATIK


Gabonetako kartei buruz egindako aipamena argitu nahian, Merkataria eta Ostalari elkarteak honako hau esan nahi du: Beti elebidun izan garela berriren bat eman dugunean, eta kasu bakar honetan, bi egunetan konpondu zen erru batengatik berehalako kexuak jaso ditugula. Egin zaigun kritika, gehiegizkoa izan dela iruditzen zaigu. Hala eta guz-

tiz, egindako akats honengatik, ez genuke gutxietsiak eta mesprezatuak sentitu nahi, urtean zehar inoiz baino ekintza elebidun gehiago egin baititugu, eta aurrerantzean modu honetan lan egiten jarraitzea pentsatzen dugu. Gure interes komertziala, gure herriari eta bezeroei ZERBITZU on bat eskani eta ematea da.

ZUMAIAKO MERKATARI ETA OSTALARI ELKARTEA



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157



Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861589



Itzurun, 1 Tel. 943 143224

Ez, aurten ez diat rosakorik jango!!!



Karmelo Arroiabe

Errege eguneko goiz honetan, planto egitea erabaki diat. "Ohitura zaharrak" eta tradizioaren izenean nahiko tragatu (zentzu zabalenean) diat Gabon jai hauetan zehar eta gaurko gosarian ez diat rosakorik hartuko; zer arraio gero!! Kementsu eta borrokalari

jaiki nauk gaur eta, pena, bart, Erregeek ez direla gure etxetik pasa, zeren bestela entzun beharko zizkien dianak eta eztiak!! Hauek ere kapa eta koroa eleganteekin eta eskuzabal antzian agertzen dituk baina badaezpada ere gauaren iluntasuna aprobetxatzen ditek etxeetan sartzeko, bertako inorekin topo egin ez dezaten.

Bestalde, egia dek jai hauetan erregeak direla zerbait emateko prest dauden bakarrak. Atzo kalean airez bidali zizkidaten gozokietatik, bat eskuratu nian, buruan jo ondoren. Emateko ohituretatik (inoiz izan bada) gelditzen den bakarra hauxe dela uste diat, zeren beste guztiak eskatzekoak dituk eta hauek bai irauten dutela (etxetoak, niño Jesusen eskia, gabon koroa, olentzero, erregeak, etab). Ematea borondatezkoa dek, baina egun hauen bueltan ezarrita dagoen/dugun giza presioa hain haundia dek, zeinek azkenean denok irensten gaituen, "zirkuitoa" osorik betetzea behartuz, nahiz eta azkenerako luze eta gehiegikor gertatu. Urtea joan eta urtea etorri, berdin edo okerrago. Ohitura zahar eta tradizioen ezinbesteko errepikapen hutsak, aspergarriak gertatzen zaizkidak, beti atzera begira gaudelakoan. Berriaren bilakuntza gogokoago diat.

Aurten, azken unean bada ere, ez diat zirkuito osoa egingo, eta hurrengo Gabonetarako, festa hauek hain gogoko ez dituen guztiei eta nire lankide trinitarioei, irtenbide berri baterako erreflexiora gonbidatzen diet.

Roskoen iraultza dela eta

Gorka Hormazuri



Karmelo, mon amour, ez hadi hain harrosko jarri rosko kontu horregatik. Bete-betea atera zaik roskoen kontrako panfletoa baina... amigo!, erraza duk ezezkoa ematea behin, tradizioaren izenean, tripa ondo beteta daukaanean. Hala ere, beste aldetik, urte osoan jango duan rosko bakarrari uko egiten ari haizela jakinda, ez duk sakrifizio makala, motel. Azpiko trikomioak ezin dik gauza bera esan, beretzat "roskoa" jatea eguneroko kontua da eta (edo ia egunerokoa behintzat, ez?)

Azpian profesional bat edukita nahiago diat roskoen gaia bere horretan laga eta, besterik ezean, hik aipatutako berritze ahaleginari helduko zioat; halere, beste gaiarekin konparaziorik ez zeukak, eh! Karmelo, hirekin konforme nagok: tradizio "zirkuito" hau luzeegia duk; baina, kontuz!, tradizioa haustea jai egunak galtzea badakar, ez ziok negoziazorik. Iraultzaileak gaituk baina puntu bateraino. Zerbait asmatu behar diagu aldatzeko baina jaiak galdu gabe. Gainera, pentsatzen jarrita, zein ausartuko duk umeei Olentzerorekin, niño Jesusen eskian edo erregeen aitzakian lortzen dutena kentzen? Lan zaila jarri diguk, Karmelo.

Hi, Eneko, rosko artean denborarik baldin badaukak, zerbait pentsa ezak.

Denbora balitz arazo

Eneko Dorronsoro



Baina pentsatze hortan zegok kontua, Gorka. Gu ere ematera baino eskatzen ohituagoak, bizi garen gizartearen lekuko zintzo, bidali nioan nik ere olentzerori nere listatxo. Okerrenera ere, ikatz azukretua gutxienez jasoko nuelakoan.

Olentzero pasa, pasa huan, utzi nioan botila ardoa husteko tarte behintzat hartu zian. Baina ez huan zuhaizpeko zapata garbiaren aurrean gelditu. Hura ere gure gizarte beraren lekuko itxuraz.

Erregeengan berriz, aspaldi galdu nian konfiantza, gure gizartearen lekuko ez ezik, oinarri ere beraiek baitituk. Emateko zeudek ba! Eta noski, hilaren seiko goiz hartan ez nian ezer jaso. Alperrik izan huan pinua goitik beheraino arakatzea.

Tripartitoko kide zorrotz ziztadak jasan ahal izateko hain beharrezko nian imajinazio zakurik gabe geratu nauk aurtengoan ere, beraz.

Ondorioz, ez duk denbora falta, nere ez pentsatzearen arrazoi. Baina izan zitekean.

Donostiako ziudade urruneraino ere iritsia duk gozoekiko dudana zaletasuna, nere harridurarako. Eta ez nauk hemen ukatzen hasiko. Ez duk harrosko kontua, agerikoa onartzea baizik.

Trinidad ean amak lekuri ez dik izango baina, nereak dagoeneko bazekik logelan dudana plastikozko muñekito horteroen kolezioa ez dela tiropitxonean botea. Baina horixe diate roskoek. Ustez doan, tokatu ezker ordaindu egin behar!

GAZTETXOLA AURRERA DOA

ORAIN HILABETE pare bat ireki zuten gazteak biltzeko guneak badu bere ikurra. Horretarako lehiaketa antolatu zuten, eta gazte askok hartu du parte. Gehienak zumaiaarrak izan dira. Kanpotarren lanak ere izan dira, eta horietako batena izan da irabazlea, Oreretako hemezortzi urteko Igotz Enrikerena, hain justu.

Bestalde, Gaztetxolako arduradunak oso gustura daude. Gazte ugari joaten da, pentsatzen zutena baino askoz gehiago. Adin eta ikastetxe ezberdinetako neska-mutilek elkar ezagutzeko aukera dute, eta antolatutako ekintzetan parte hartze handia izaten da. Pentsa, urtarillaren 18an hasi zen futbito txapelketan hirurogeita zortzi gaztek eman dute izena. Gazteak erae gustura daude, eta igande arratsaldetan irekitzeko sinadurak bildu dituzte.

ZUMAIKOREN LIBURUA KALEAN

SALGAI DAGO Zumaia koren historia biltzen duen liburua. Eguzki Agirrezabala eta Joseba Esnal izan dira koordinatzaileak. Liburu oso interesgarria da, jokalariek guztien argazkiekin eta gure herrian futboleko aritu direnen eta ari direnen hitzekin osatua. Argazkiko haurrek edo beste batzuek 25 urte barru Zumaia koren 50 urteko historia biltzen duen liburua idaztea ez litzateke seinale txarra.



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

AITA MARI
kafetegia

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaia



MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astegunak: 8:30 - 10

Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdia
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Ama, 14
E-20749 Arroa (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



"20 urte kantari"



JOANITO DORRONSOROK idatzi duen liburuaren izenburua da, eta Zumaia Berts Eskolaren hogeitorteko historia biltzen du.

Liburua egiteko proposatu ziotenean zalantza hau izan zuela argitu zuen Joanitok: "ez al duk geure buruari xaboa ematea?" Berehala uxatu zitzaizkion zalantzak, Euskal Herria bezalako Herri zapaldu batentzat horrelako lanak egitea ariketa ona eta aurrera egiteko bidea dela iritzita.

Berts Eskolen mugimenduen sorrera aipatu zuen, bi helburu zituztela azalduz: bat, Ikastoletan bertsoa txertatu; eta bi, bertsolari izan nahi zutenak trebatu Ikastoletatik kanpoko orduetan. Garai

hartako testuingurua aipatu zuen ondoren. Kontu izan, industrializazioagatik euskal mundua aldatu egin zela. Eta ordura arte bertsolariak mendiko belarra bezain erraz atera izan baziren, garai hartan lan nekezagoa bilakatu zen hori. Horregatik, ezinbestekotzat jo zuten Berts Eskolak sortzea.

Bertsazale Elkarteko lehendakariak, Imanol Lazkanok Berts Eskolak eta euskara mintzatua lotu zituen. Bere esanetan, Berts Eskoletan aritu denak euskara askoz landuagoa hitz egiten du. Gaur egungo bertsolaritzan duten garrantzia nabarmentzeko, berriz, galdera hau erabili zuen: "Berts Eskolarik gabeko Jon Maia imajinatzen?"

Liburuaren mamia zein den Jon Maiak berak azaldu zuen. Argazki eta bertso ugari ditu, baita laguntzaile askoren artikulak ere, herrikoenak eta kanpokoena. Azken horien artean Xabier Amuriza, Mikel Mendizabal eta Patxi Goikolea aipatu zituen.

10 balio du, eta leku hauetan eros dezakezu: Loitz eta Aizpuru liburu dendetan, Inpernupen, Forondan, eta Turismo Bulegoan. Agudo erosi, bukatu baino lehen!!

Bertsopaper lehiaketa

Bosgarrena izan du aurtengoa Berts Eskolak antolatutako lehiaketak. Aurtengoak, gainera, berrikuntza bat izan du, bi maila izan direlako: helduak eta gaztetxoak. "Nola Ikusten duzu, edo ikusi nahi zenuke Zumaia etorkizunean?". Horixe gaia. Denera, hamabi parte hartzaile izan dira, eta sarituak honako hauek: helduetan Gorka Iribar txapeldun, eta Xabier Azkue bigarren. Gaztetxoetan Markel Peñalba aurrena, eta Urtzi Iribar bigarren. Zorionak parte hartzaile guztiei!!



AMETZA
taberna

Santiago auzoa, 4
tel: 943 143370



Azkue Autoak

Tel: 943 861433
Faxa: 943 861067
Estazioko kalea, 19

Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407

Zumaia ere belztuta

ZORITXARREZ GURE herrira ere iritsi da Prestige ontziak isuritako fuela. Urtarrilaren bigarren astean izan zen hori, eta ondorengo egunetan ere ikusi ahal izan genuen Galiziatik datorren txapapotea. Hainbat hegazti hilda agertu ziren Itzurunen eta Algorrin. Hondartzak garbitzen dituzten langileak aritu ziren garbiketa lanetan.

Gerora ez da fuel gehiago agertu, baina Asturias aldean ikaragarritzko orbana dago. Haizea aldatuz gero, arrisku latza dago guregana iristeko. Beraz hau irakurtzen duzuenean, litekeena da gure hondartzak eta arroak zikintzea eta kutsatzea.

Badaezbada ere, ibaia ez zikintzeko, hesia jarrita dago Talaie parean.



Herriko langileak aritu dira hondartzak garbitzen.



Fuelak uzten duen zikinkeria garbitzeko erabiltzen dituzten tresnetan agerian gelditzen da.



Kazetari mordoa ibili da Zumaian fuela iritsi zenetik.

Alboko argazkian, Zumaian hilda agertutako hegazti batzuk.



LUCIA LACARRA
DANTZARIA

“Dantza nire bizitza da”

Dantzan ari denean komunikatzaile bikaina da. Hizketan ere beste horrenbeste bada. Dantza egiteko duen erraztasun bera dauka hitz egiterakoan. Solaskide izateko zoragarria.

Munduko dantzari onena zara. Zer esan nahi du horrek zuretzat?

Izugarria da. Ez nuen horrelakorik espero. Kontuan izan balet munduan sari hau bakarrik dagoela. Dantza egiten dudun bakoitzean jendeak txalo jotzea, gustura izatea nahi izaten dut. Pentsa orduan sari hau niretzako zer den. Dantzaren munduan dabilen jendeak nik egindako lana baloratzea da. Hunkigarria.

Hitzetik hortzera dabil zuri emandako Nijinski saria, baina nor zen Nijinski?

Baleteko lehenengo mitoa izan zen, izugarrizko dantzaria, lehenengo izarra. Iazkoa izan zen sari horren lehen ekitaldia. Dantzaren munduko oskarra deitzen diote. Sari banaketako festa izugarria izaten da.

Hemen, herrian ere egin dizute omenaldia. Ia-ia bestea baino garrantzitsuagoa izan da niretzat. Familia, lagunak hemen ditut, eta pozgarria izan zen. Kontuan izan, gainera, Nijinski saria norentzat izango den erabakitzeke Internet bidez emandako botuek ere balio dutela. Eta badakit Zumaia jende askok eman didala botua. Eskerrak emateko modu bat izan zen omenaldia.

Noiztik zabilta dantza munduan?

Txiki-txikitatik nahi nuen dantzari izan. Bederatzi urte nituenean hasi nintzen, hemen Zumaian. Gero Donostiara jo nuen, eta han Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako

*Munduko dantzari onena
izendatu berri dute*

Lucia Lacarra.

*Urteko lehenengo jarduna
egiteko pertsona mundiala,
beraz.*



bekak jaso ahal izateko egin behar ziren pausoak ematen lagundu zidaten. Beka horien bitartez Madrilera joan nintzen, Victor Ullaterengana. Urtebetez egon nintzen berarekin ikasten, eta hamabost urterekin profesional izatera igaro nintzen. Hiru urte egin nituen bertan, eta izugarria izen zen, oso garrantzitsua delako zuzendariak dantza egiteko aukera eta konfiantza ematea.

Madriletak Marseillara, ezta?

Bai, horrelaxe da. Hemeretzi urte nituela joan nintzen, eta han Roland Petit-ekin egiteko aukera izan nuen. Gauza berriak egin nahi nituen. Victor Ullateren konpainia txikia zen, eta balet motzak egiten genituen, obra laburrak. Nik historiako baletak egin nahi nituen, pertsonaia bat interpretatuz. Eta asmo horiekin joan nintzen Marseillara. Beste hiru urte egin nituen han, eta gero San Franciscora joan nintzen.

Ez zara geldirik egitekoa...

Ez, nire izaera horrelakoa da. Leku berean denbora luzez egotea ez zait gustatzen.

Eta San Franciscon zer?

Gauza berriak, esperientzia berriak izan nahi nituen, eta horretara joan nintzen. Bizitzeko beste modu bat da, baita lan egitekoa ere. Askok ikasi nuen bertan, oso esperientzia ona izan zen.

Eta orain, berriro ere Europan...

Bai, Munichen nago. Jendeak, ikusleek oso ondo hartu naute, eta gustura naiz. Hasiera berri bat da niretzat.

Munduko leku asko ezagutzeko aukera izan duzu, ezta?

Bai, horrela da. Orain Budapestera noa, ondoren Kanadara eta Estatu Batuetara, eta abuztu osoan Japonian



**"Dantza ez da lana
niretzat,
gorputzaren eta
mugimenduen
bidez adierazteko,
espresatzeko
modua da"**

izango naiz. Konpainiako lanez gain, galetan eta jaialdietan dantzatzeko gonbidapen asko izaten ditut, eta munduan zehar ibiltzen naiz.

Zumaia bezalako herri txiki batean jaio, eta mundua ezagutu...

Bai, baina beti daukat etxera etortzeko gogo; familiakoak ikusi, eta lasaitasuna izan. Norbere herria beti da norberaren herria.

Nolakoa da zure egun normal bat?

Erabateko errutina. Egutero klasea izaten dut goizeko hamarretan. Gero, hamaiketan entseguak hasten dira, eta arratsaldeko seiak edo zapiak arte ez ditugu bukatzen. Ikuskizuna badugu entseguak lehenago bukatzen ditugu prestatzeko asti gehiago izateko. Baina egutero sei-zazpi orduko lana izaten dut.



Amaiako plaza z/g

Tel. 943 860959

gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334



Zuretzat dantza zer da?

Nire bizitza (dantza da nire bizitza). Ez dakit beste ezer egiten. Ezagutu dudana bizimodu bakarra dantzariarena izan da, egunero dantza egitea. Dantza ez da lana niretzat, gorputzaren eta mugimenduen bidez adierazteko, espresatzeko modua da. Bihotzarekin ere zerbait adierazi eta eman nahi izaten diet ikusleei, sentimendu bat, pertsonaia baten bizitza. Dantza nire bizitzeko modua da.

Ikusleekin komunikatzea aipatu duzu. Guk hitzez edo zeinuen bitartez egiten duguna, zuk nola egiten duzu gorputzaren bitartez?

Talentu artistikoa da hori. Badaukazu ala ez daukazu. Badira oso dantzari onak, baina ezer komunikatzen ez dutenak. Nik berezko talentua daukadala uste dut sentimenduak kanporatzeko. Niretzako hori dantza egitea baino garrantzitsuagoa izan da. Roland Petitek erakutsi zidan barruan sentitzen nuena kanporatzen. Eguneroko sei-zazpi orduko lana horretarako egiten da, teknika ahaztu eta bihotzarekin dantzatu ahal izateko.

"Eguneroko sei-zazpi orduko lana horretarako egiten da, teknika ahaztu eta bihotzarekin dantzatu ahal izateko"

Dantzatu dituzunetatik zein lan edo obra aukeratuko zenuke?

Zaila da bat aukeratzea. Obra bakoitzean dena ematen dut, eta gainera, oso ezberdinak dira. Batean argumentua alaia da, bestean, berriz, tristeia. Obra bakoitzak ematen dizu berezia den zerbait. Bat esatekotan Onegin aipatuko dut. Eugene Onegin konpositorearen bizitza kontatzen du.

Euskal Herrian dantzak nolako indarra dauka?

Handia. Euskal Herritik dantzari asko atera dira kanpora. Hor daude Urtzi Aranburu, Jone San Martin... Euskal dantzak denen barruan daude. Gainera, dantza klasikoak euskal dantzetatik pauso asko hartu ditu. Gure ondarea dira euskal dantzak, eta batek dantzari izatea erabakitzen duenean denean, nik uste denok pozten garela. Barruan daramagun zerbait da.

Zer esan zizuten etxean "dantzari izan nahi dut, eta kanpora noa" esan zenien?

Hasieran txantxa bat balitz bezala hartu zuten. Orduan Zumaian ez zegoen dantzako eskolarik, eta inork ez zekien nondik atera nuen dantzari edo bailarina izateko asmoa. Burugogorra nintzen, eta nire asmo eta gogo hark buru barruan jarraitu zuen. Gero, Zumaia dantza eskola sortu zen, eta handik Donostiara joetea hasi nintzen. Ama konturatu zen serio nenbilela, eta harrezkero beti lagundu izan dit. Eta poliki-poliki gaur arte. Nik uste dut, gainera, inor ere ez garela konturatu egiten ari nintzen bidez.

Aizu, Lucia, zer moduzkoa izan zen Nijinski saria jaso zenuen festa? Monakoko Alberto printzea ere tar-tean zen...

Oso polita izan zen. Beraien etxean antolatu zuten festa, eta gu bezalakoak dira. Hasiera oso berezia izan zen, baina gero normal aritu ginen. Beste edozein per-

ODONTOLOGIA - PROTESIS DENTAL

CLINICA DENTAL ZUMAI KLINIKA

Paseo de los Fueros - Bajo
Tel. (943) 86 14 74
20750 ZUMAI (Gipuzkoa)

Gerente
Rafael Insuendegi Elgoiber

KABI

TABERNA - ZUMAI

Tel. 943 143379

TXOMIN AGIRRE, z/g
TEL: 943 865369

KAIA
Kafetegia

tsonarekin bezala aritu nintzen solasean Alberto printzearekin.

Lehentxeago aipatu dugu munduan zehar ibiltzen zarela. Hizkuntza asko hitz egingo dituzu, ezta?

Bai, nahitanahiez, baina gustukoa dut hizkuntzak ikastea. Ingelesa, frantsesa, italiara ikasi nituen, eta orain alemanerarekin ari naiz.

Esaten dute euskaraz hitz egiten dugunok erraztasuna dugula beste hizkuntzak ikasteko.

Dantzetara itzulita, lan edo obra bakoitzean arropa desberdinak erabiltzen dituzu. Jostunak konpainiakoak izaten al dira?

Bai, bai. Konpainiaren barruan dago jostunen saila. Lehenengo egunean neurriak hartu, eta lan bakoitzeko arropa desberdinak egiten dituzte.

Lehenengo dantzaria, protagonista nagusia izanda, hobeto zaintzen al zaituzte?

Beno, neurri batean bai. Neuretzako kamerinoa daukat, arropak janzteko ere pertsona bat daukat. Esan dezaket baietz, hobeto zaintzen nautela, tratu berezia daukadala.

Horrek, ordea, bi alderdi ditu, ezta? Batetik, ondo zaintza zaudela, baina, bestetik, elkarriketak, publizitatea eta antzekoak ere gehiago...

Bai, baina egin beharrekoak dira. Dantzaren beste alderdiak da hori, eta tokatzen denean egin eta kitto. Hala ere pentsatzen ditut.

Konpainiak askotan aipatu dituzu, baina zer dago atzean?

Puff... izugarria da. Denetik dago. Orain nagoena da, eta dantzaz gain opera ere badu. Orduan, dantza oso bat beretzako dauka, eta sail bakoitzak beste ar...

"Dantza klasikoak
euskal
dantzetatik
pauso asko
hartu ditu"



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



- Depilaketa (heroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a



Erribera kalea Tel. 943 861523

LUCIA LACARRAK

27 urte ditu.

Hizkuntza guztietan

irakurtzea,

tapizgintza egitea,

eta zinea ikustea

dira bere zaletasun

gogokoenak. Hori

bai, denborak uzten

dionean.



beharko lukete. Pena da hemen ezer ez egotea. Polita izateaz gain, gorputzarentzat ona da. Nesken bilakaeran lagundu egiten du, giharrak luzatu egiten dituelako.

Dantzaz gain, beste kirolen bat egiten al duzu?

Ez, debekatuta daukagu. Gustatuko litzaidake patinajea edo egitea, baina ezinezkoa da.

Gorputza aseguraturuta al daukazu?

Ez, baina konpainiaren barruan aseguru bereziak ditugu. Gainera gorputza aseguratzeko hasita, zer da aseguratu beharrezkoa? Hankak, bizkarra, besoak...dena da beharrezkoa. Gaur egun, gainera, min hartuz gero sendatzeko aukera handiak daude. Oraingo konpainian badira lau edo bost ebakuntza izan dituzten neskak,

**"Dantza egiteko
gogoa sentitzen
dut, jende
aurrera
ateratzeko
zirrara
antzeko bat"**

eta dantzan ari dira.

Lehen esan duzu zaila dela lan edo obra gogokoena aukeratzea. Dantzatzeke leku edo toki gustukoena zein duzu? Askok sortzen dizute zirrara, baina bi esango dizkizut: Pariseko Opera, eta Moskuko Bolsoi Antzokia. Hiriak aipatuta, Tokio aipatuko nuke. Oso berezia da. Ikusleak fanatikoak dira: hamar ikuskizun egiten badituzu denetara joaten dira; autografoak sinatzen bi ordu egiten dituzu; hotelera joaten zaizkizu, bezperan ateratako argazkia oparitzera antzokira joaten zaizkizu; beste hamaika opari egiten dizkizute. Ikaragarria da. Pentsa, ez dakit nondik baina Municheko helbidea lortu dute batzuek, eta argazkiak bidali dizkidate. Datorren abuztuan Tokiora noala ere badakite. Oso bereziak dira.

Zer dute berezia Parisek eta Moskuk?

Antzoki horiek oso zaharrak dira, eta aurreko dantzari ospetsuen espiritua bertan dago. Badakizu zu zauden kamerinoan Pavlova eta Margot Fontaine egon zirela duela urte asko.

Orain zein obra ari zara prestatzen?

Munichen Raymonda egingo dut berriz, Ray Barra-ren koreografia bat. Gero, otsailean Budapesten koreografia berri bat egingo dugu. Konpainia berria izatean, lanak ere berriak dira.

Jendearen aurrean dantzatzerakoan urduri ipintzen al zara?

Ez, urduritasuna ez da. Dantza egiteko gogoa sentitzen dut, jende aurrera ateratzeko zirrara antzeko bat. Hamar segundoko tartetxo izaten da, norberari dagokion musika entzun artekoa. Gero, dantza egin eta gozatu.

Orkestrarekin harreman estua izatea ezinbestekoa izango da, ezta?

Bai, ezinbestean. Dantzariak eta musikak bat izan behar dute. Derrigorrez-

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



**METRO
taberna**

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620

koa da lotura estua izatea.

Orduan, dantzari bati lagungarria izango zaio musika-zalea izatea.

Bai, eta nire kasuan horrela da. Oso musikala naiz.

Bukatzeko, dantza ikustera sekula joan ez den jendea konbentzitu ezazu dantza ikustera joan dadin.

Dantza zinea eta antzerkia bezalakoa da, gustatzen zaizu edo ez. Normalean lehenengo aldiz joaten dena berriro ere bueltatzen da. Mentalitate irekiarekin joateko gomendatuko nieke: joan, eseri, begiak ondo irekita ikusi eta gustatzen bazaie ondo.



ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3ª 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kirol zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoa,
Balorazioak

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ALTZARIAK
OSTOLAZA
ARROZTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
arroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A



ARRANTZALEAK LARRI



**Berez gogorra den lanbidea
kanpoko hainbat gertakarik
gogorrago egin dute.**

**Euskal arrantzaleen
etorkizuna kolokan dago.
Europako Batasunak egin
nahi duen erreformak eta
Prestige petroliontziak
eragindako eta eragingo
duen sarraski ekologikoak
oso kezkatuta dauzka gure
arrantzaleak.**

Hala ere, euskal arrantzaleak Europako Batasunak egin nahi duen erreformaren mamiarekin ados daude. Erreforma edo berrikuntza horren helburu nagusiarekin bat datoz gure arrantzaleak. Itsasoak dituen berezko baliabideak bere onera ekartzea du helburu erreformak. Azken urteetan izugarrizko gehiegikeriak egin dituzte arrantzaleek arraina harrapatzerakoan, eta hainbat arrain desagertzeko zorian daude. Hori galarazi nahi du Europako Batasunak. Horra arte konforme direla esan digu Gipuzkoako arrantzaleen kofradiako presidente Esteban Olaizolak. Itsasoaren baliabideak bere onera ekartzea egin beharreko lana dela esan digu. Hori lortzeko bideekin, ordea, ez daude ados. Ezta gutxiago ere. Batetik, Europak ontzi kopurua murriztu nahi du. Neurri horrek bete-betean jotzen ditu euskal arrantzaleak. Izan ere, orain arte ontzi berriak egiteko edo zaharra berritzeko diru laguntzak ematen zituen Europak, eta horri esker Euskal Herrian makina

bat ontzi berri egin dituzte. Orain, ordea, laguntza horiek kendu egin dituzte, edo kentzeko bidean dira. Esteban Olaizolak esan digunez, orain ontzi berria egin edo zaharra berritzen ez duenak gero jai dauka. Gainera, Europa kontraesan latza egiten ari dela salatu dute euskal arrantzaleek, sare depredatzaileez jositako ontzi handiak egiteko inolako erreparorik ez duelako jartzen.

Tresnak

Euskal arrantzaleek sareen kontuan atzeman diote beste kontraesan bat Europako erreformari. Esteban Olaizolak dioen bezala, itsasoaren baliabideak bere onera ekarri eta arrainen desagertzea galarazteko ezinbestekoa da zenbait ontzik erabiltzen dituzten tresnak eta sareak behin betiko galaraztea. Bolanta eta pelagikoez ari da. Horien erabiltzaileak dira, batez ere, arrainak desagertzeko zorian utzi dituztenak. Izugarritzko txikizioak egiten dituzte.

Beraz, euskal arrantzaleak ados daude helburuarekin. Ez, ordea, helburu hori lortzeko bideekin.

PRESTIGE

Badira bi hilabete hondoratu zena, edo hondoratzen utzi zutena. Hasieratik bertatik, isuritako fuelak Galiziako kostaldea zikindu eta kaltetu zuen. Denborak aurrera egin ahala, fuel orbanak leku askotara eraman dituzte ur korronteez. Eta zoritxarrez, Euskal Herriko kostaldera ere iritsi dira. Kantauri osoa kutsatu du fuel madarika-tuak. Baita Frantziako mendebaldeko urak ere.

Aztergai dugun gaia kontuan izanda, berehala sortzen zaigu galdera hau: euskal arrantzaleengan nolako eragina izango du? Erantzuna asmatzea ez da zaila. Hala ere, guk arrantzaleen iritzia jaso nahi izan dugu. Baita biologoena ere.



Esteban Olaizolak esan digunez, beldurtuta daude. Ez dakite seguru zenbateko eragina izango duen fuelak eragindako hondamendi ekologikoak. Beldurtuta ez ezik haserre daude. Gaur egun munduan bizi dugun gerra usainarekin konparatuta azaldu digu beraien haserre. Armak erosten dirua

Hori ulargarria dela dio Esteban Olaizolak. Hala ere, arrantzaleen kezka beste bat da: itsaso zabala garbitzea. Horretarako Eusko Jaurlaritzarekin hainbat bilera egiten ari dira, eta egun hauetan ehun ontzi itsasoratu izan dira itsaso zabaleko fuela garbitzeko.

Aurtengo antxoaren kostera arriskuan dagoen galdetuta ezetz esan digu. Momentuan ez, behintzat. Hori bai, kostera bertan behera utzi behar izanez gero, edo kalte ekonomikoak izaten badituzte, arduradunak bilatu eta epaitzietara jotzeko prest daudela aipatu digu. Sarraski honen arduradunak bilatu nahi dituzte, eta gero, kostera txarra bada, Espainiako gobernuaren kontra egingo lukete.

Europa kontraesan latza egiten ari dela salatu dute euskal arrantzaleek

gastatzea, eta gero petroliontzi batek isuritako fuela jasotzeko kapaz ez izatea oso tristea dela uste du. Ez zaio ez arrazoirik falta.

Bestalde, euskal kostaldeko alkateen kezkak eta arrantzaleenak ez datozela bat azaldu digu. Alkateek beraien herrietako hondartzak zaindu nahi dituzte turismoari kalterik ez egiteko.

Biologoek ustez, arrain txikiak desagertzeko arriskuan daude

Inaxio Manterola "Manta" biologo zumaiaarrangana jo dugu fuelak arrainen izango duen eragina nolakoa izango den jakiteko. Kezkatuta dago. Eta haserre.

Aurtengo antxoaren kosterari buruz galdetu diogu lehendabizi. Komertzializatzerakoan ikusten ditu arazoak.

ANDONI IZTUETA:

"Aurtengo udaberrian ez dakit
itsasora joango garen"

Zortzi urte daramatza itsasoan. Arrantzale orok bezala usain txarra hartzen dio Prestige-n hondamendiari. Epe laburrean kalte handia egingo dielakoan dago. Hala ere, Euskal Herriko arrantzak etorkizuna baduela dio.

Prestige-n hondamendiagatik kolore beltzeko etorkizuna al daukazue arrantzaleek?

Ona ez, behintzat. Aurtengo udaberrian ez dakit itsasora joango garen Orain irten behar zuten bi itsasontzik lehorrean gelditu behar izan dute. Guri zer gertatuko zaigun ikusi egin behar.

Zein da gertatu denari buruzko zure iritzia?

Txapuz a ikaragarria egin dute. Sekulako hanka sartzea. Itsaso zabalera eraman beharrean leku itxi batera eraman balute, hobe; huraxe bakarrik zikinduko litzateke. Gero, bildu eta garbitu, eta kitto!!

Lasai antzera egoteko aukera daukazuen
garaian tripak jaten egon behar...

Bai, bai, dudarik gabe. Itsasora joan eta harrapatuz gero saltzen utziko al digute? Hortxe dago koxka!!

Itsasoan askotan ikusiko dituzue Prestige bezalako ontzitzarrak. Zuen artean inoiz hitz egin al duzue horrelakoak hondoratu gertatzen diren hondamendiez?

Horrelakoak kantidadea ikusten ditugu.

Orain urte batzuk Erika petroliontzia hondoratu zenean hitz egin genuen horretaz, baina norberari tokatu arte...

Txarrenera jota, demagun antxoan kostera bertan behera gelditzen dela. Orduan zer?

Saillburuordearekin hitz egin dugu horretaz, eta gertatuz gero erabakiak orduan hartuko direla aipatu izan digu. Guk paro edo geldialdi biologikoa eskatu diogu antxoaren kostera bertan behera geldituz gero. Ezingo genuke ezer egin gabe egon, batera eta bestera begira. Garaia etorrirakoan erabakiak hartuko dituztela erantzun digu.

Dena dela, kanpotik begiratuta, behintzat, euskal arrantzaleak gustura zaudete Eusko Jaurlaritzarekin, ezta?

Bai, bai. Dirulaguntzekin eta konforme gaude. Harreman onak ditugu. Hala ere, fuela jasotzeko moduarekin ni, behintzat, ez nator bat. Ontziak txandaka bidali beharre-

an zergatik ez gara denok batera joaten? Azkarrago garbituko genuke.

Zer dela eta, orduan, txandaka joateko erabaki hori?

Nire ustez, fuelak hartuko duen norabidearen zain daude. Frantzia aldera egiten badu, eskuak garbitu eta arazoa beraientzat. Hona etortzen bada, berriz, flota guztia bida-

liko lukete fuela jasotzera. Ez diot beste azalpenik aurkitzen.

Fuela alde batera lagata, bada Euskal Herriko arrantzarentzat kaltegarria den beste kontu bat: Europako Batasunak arrantza munduan egin nahi duen erreforma. Nola ikusten duzu hori?

Hor gauza bat garbi dago. Itsasontzi berria egiteko aukera eta dirulaguntzak denok izan ditugu. Nahi izan duenak egin du; nahi izan ez duenak, edo komeni ez zaionak, edo aurrera egiteko gai ikusten ez denak ez du egin. Dirulaguntzen ondortik datorrena beste kontu bat izango da. Flota murriztuko dute. Behar bezalakoa itsasontzia ez duena lehorrean geldituko da, desguazera bidaliko dute. Horretarako ere dirulaguntzak emango dituzte.

Badirudi Europako Batasunak estatu handien mesedetan egin nahi duela erreforma...

Pentsatu izugarrizko flota eta itsasontzi handiak dituzten estatu asko daudela.

Kalte handia egiten duten sareak ere estatu handietako itsasontziek erabiltzen dituzte. Nork esaten die horiei zer-bait? Nork gelditu horiek?

Albiste txarrak hitzetik hortzera erabili ditugu. Egia gordina, zoritxarrez. Gazteak ere ez dira itsasora hurbiltzen. Euskal Herrian arrantzak etorkizunik bai al du?

Bai, bai. Orain kanpotik ekartzen dute jendea, eta gero eta gehiago ekarriko dituzte. Azkenean hemengo lau eta kanpoko zortzi izango gara itsasontzietan. Baina etorkizuna badu. Nire ustez, geldituko diren ontziak ondo ibiliko dira. Kontuan izan, ontziak gutxituta konpetentziak ere behera egingo duela. Ondorioz, arraina harrapatzeko aukera gehiago. Harrapatutakoa ere prezio hobean saldu ahal izango da.

“Txapuza
ikaragarria egin
dute. Sekulako
hanka sartzea”





Desguazerako den ontzi hau fuela jasotzeko erabiltzen ari dira.



Hondartzan hau egin daiteke. Arroketan zer?

Arraina harrapatuta ere, fuela hemen inguruan badago ez dela salduko esan digu. Aurtengo arazo handiena hori izango dela uste du. Gainontzeko arrai-
nekin ere gauza bera gertatzeko arris-
kua ikusten du.

Aurten antxoak izan izango dela esan digu, iazko arrautzetatik sortutako antxoak delako aurten harrapatuko dute-
na. Datozen urteetan izango dira arazo-
ak. Antxoak Britainia aldean jartzen
ditu arrautzak, udaberri aldera edo. Ina-
xio Manterolak esan digunez, aurten eta
datorren urtean arrautzak jarriko dituz-
ten lekuan fuela egonez gero, akabo.
Antxoak desagertzeko arrisku latza izan-
go luke. Kontuan izan, antxoak jartzen
dituen arrautza guztietatik kopuru jakin
batek bakarrik bizirauten duela. Egural-
di ona eta ur epelak izanez gero, bizirik
irauten dutenen kopurua bikoiztu egi-
ten da. Kontrakoa gertatuz gero, kopu-
ruek erdira murrizten da. Ba pentsa,

**Sarraski honen
arduradunak
bilatu nahi dituzte,
eta gero, kostera
txarra bada,
Espainiako
gobernuaren
kontra egingo
lukete**

arrautzak jartzen dituzten lekuetan
fuela baldin badago, izugarritzko honda-
mendia litzateke. Kasu honetan ere, gai-
nontzeko arrain txikiekin gauza bera
gertatzeko arrisku legoke.

Espezie horien desagertzea gutxi
ez balitz, handiagoen iraupena ere

arrisku larrian legoke. Euskal arrantza-
leek harrapatzen duten beste arrain
bat bete-betean joko luke arrain txi-
kien desagertzea. Atunaz ari gara.
Arrain txikiak jaten dituzte, eta desa-
gertzen badira atunaren etorkizuna
kolokan legoke. Baita euskal arrantza-
leena ere.

Ur azpiko fuelaren arriskua

Manta harrituta dago ur azpian dago-
en fuelari buruz ezer gutxi esaten
delako. Ur azalekoa kentzen ari dira,
baina azpikoa? Horretaz inork ez du
ezer esaten, eta izugarritzko kaltea
egina izango du dagoeneko. Egutero
ikusten dugun eta erakusten diguten
azaleko fuela arriskutsua baldin bada,
ur azpikoa oraindik eta arriskutsuagoa
dela esan digu. Arrisku hori handitu
egingo litzateke Prestige lehertuz
gero. Mantaren ustez, hori honda-
mendia litzateke.

“Iraganaren pantaila”

Bertsolaritza

BOSGARRENA izan du aurtengoa gure bertso-paper lehiaketak. Aurrekoen bidetik, aurtengoan ere Zumaia-ekin loturiko gai baten inguruan egin behar izan dituzte bertsoak parte-hartzaileek. Aldaketa bat izan dugu aurtengoan, gaztetxoei ere aukera emateko asmoz, bi mailatan bereizi baitugu lehiaketa.



Zumaia-ko
Bertso Eskola

Gaia "Nola ikusten duzu, edo ikusi nahi zenuke Zumaia etorkizunean" izan da. Guztira hamabi parte-hartzailetatik,

zen txapeldun Urtzi Iribarren aurretik. Zorionak guztiei. Honako hauek dira Gorkaren bertso sarituak:

Anade elkartean egindako bertso afarian, honako hauek saritu zituen epaimahaiak: Helduetan Gorka Iribar txapeldun, eta Xabier Azkue bigarren. Eta gazteen mailan Markel Peñalba suertatu

Iraganaren pantaila
hobetze urratsak mila
piztu dezagun bonbila
dena ezin korapila,
Zumaia herri lasaia degu
katramilak, katramila
leku ederra ta atsegina
nor dabil gehiagon bila?
alde batetik itsasertza ta
bestetik mendi hurbila
zerbait eskatzen hasi ezker
izan behar det umila
orain bizi den era berean
bakean bizi dadila.

Etorkizunaren jiran
makina bat badet nigan
hasiko naiz ikusmiran
nahiz zer dagon ez dakidan,
Euskal Herritar garen guztiok
gaude zerbaiten desiran
nik Zumaia helduko diot
hala jartzen baitu gidan
makina hortan sartu behar det
ea gauzak nola diran
ikusitako ia guztia
kontaktuko det segidan
guzti guztia kontatzea ere
ez baitakit komeni dan.

Zumaia-ko zenbat buruk?
zer nahi dugu geroan truk?
ametsik ba al degu guk?
erantzun bila dihardut,
jada geroan murgildurikan
ezusteen aurrean zut
halako baten irudi eder
batekin egin det tupust
lausotutako irudi bat zen,
aspaldiko lagun batzuk
ezinezkoa iruditut zait
ta begirada moztu dut
gure herriko preso guztiak
etxean ikusi ditut!

Etorkizunean zein fin
nahiz dena ez den atsegin
kirolugarrek irakin
pairatu dudana-ekin
gauza ederrez ohartu eta
hitzari nahi diot ekin
mutil gazte bat atzeman baitut
"Aspe"ko nikiarekin
nor zen begira jardun dut baina
den-dena ezin da jakin
azken argazki bat uztartu det
guztion ametsarekin
arraunlariak ageri dira
Kontxako banderarekin.

"Gero-makina" krudela
begiratzeko nengoela
eraikuntza bat bezela
iruditut zait horrela
hasera baten pentsatu arren
espejismo hutsa zela
gero hobeto figitu naiz ta
hau ezusteko itzela
honetaraino hel zitezkenik
ez nuen espero bela
gogoan degu Santio hondartzan
putetxe bat zegoela
haren lekuan zer egingo ta
Guardia Zibilen kuartela!

Pikoleto hauek laga
ta lor dezadan algar
eraikuntzatik plazara
noan Bertso-eskolara
mendeurrena ospatzen edo
ageri dira hor hara!
ilezuridun bat ikusten dut
patriarka baten gisara
Dorronsororen ordezkoren bat
izango da beharbada
pare bat bertso entzun ditut ta
a zer nolako pasada!
harrotzearen ez diot baina
gu zerbait hobeak gara.

Nikol  Enea

TABERNA

Amaiako plaza

 **OSTOLAZA**

BURDINDEGIA

Aita Mari auzategia, 10 behea

tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Kirola eta elikadura

Dietetika

ELIKADURA OREKATUA gorputzaren funtzionamendu egokirako ezinbestekoa bada, are gehiago erregulariki kirola egiten badugu. Kirolari profesional eta lehiaketetan parte harzen dutenek, mediku edo dietista bat izaten dute elikadura arautzeko, ezinbestekoa baita beraien etekin altuena era egokian eman ahal izateko. Maila hauetara heldu gabe, gorputz-ariketa erregularra egiten bada, kontuan hartzekoa da gorputzak energia eta beste substantzien erreketak handiago izango duela; kirola egitean izerdiaren bitartez ur eta gatz mineralak (batez ere sodioa) galtzen dira, muskuluetan dagoen azukrea (glukogenoa) erabili egiten da... Elikadura orekatu eta suplementazio naturalaren bitartez, karentziak izateko arriskua gutxiagotuko dugu.

Kirolarien elikadura Gluzidoetan (azukre konplexuak) oinarritu behar da: pastak, arroza, oloa, kinoa, ogia... hau da, zekaleetatik ateratako elikagaiak, beti ere integralak. Proteinak ere kopuru egokian hartu behar dira. Normalean, gehiegi jaten dira, eta gainera animali-proteinak izaten dira: haragia, arraina, arraultzak...

Izaga Garcia
Dietista



Gomendagarriagoak dira proteina begetalak: lentejak, ilarak, soja eta bere aterakin guztiak (tofu, sehitan, tempeh, karnita...), fruitu lehorrak...

Rehidratazioa egokia izateko, ura kopuru ugarietan hartu behar da. Gatz mineral eta bitaminen galera konpentsatzeko, berdura eta frutak eguneroko elikaduran ezinbestekoak dira.

Hala ere, egokia izaten da batzuetan suplementu naturalak hartzea: erregin-jalea (jalea real), polena, konplexu multiminerak...

Kirolaren ondoren hartzen diren "edari isotoniak" (Isostar, Aquarius...), galdu ditugun ur eta gatz mineralak emango dizkio gorputzari. Garrantzitsua

da edari hauek dituzten azukreak glukosa edo glukosa-oligosakaridoak izatea, eta ez etxeko azukre edo sakarosa. Modan jarritako "barrita energetikoe", ez dute egingo kirolaren aurrean erresistentzia gehiago izan dezagun; hauek oso elikagai txikian, gluzido kopuru handia izaten dute, eta egokiak dira iraupen handiko kiroletan, azukre-jatsiera ez izateko, edo kirol ostean, gorputzari elikagai azkarrak emateko.

Kirola egitea osasungarri izan dadin, ezinbestekoa da kontuan hartzea elikadurak duen garrantzia. Emandako arauak oso orokorrak dira, egindako kirolaren eta norbere osasun egoeraren arabera jakin ahal izango dugu zer behar dituen gorputzak.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 943 861412



Ricardo J. Azcue Yeregui

Abokatua • Asegurak
Finika Administrazioak

biomis aguirre 4. behea
20.750 zuzen (giuzkoa)
E-mail: rjazuca@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862746



* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Errota garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Ze galdeuko zenuke inkestan?



Ander Artetxe
Aber Realak Liga irabaziko'un



Aitor Vela
Zeinek daka Prestige-n fuela zabaltzian kulpa?



Aritz Vicente
Zein da zuen DJ faboritua?

CROISSANTERÍA

Marina

pizzak
hanburgesak
bokatak...

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

SIWA
Belardenda

Besadi 9
943 143404

- Etikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak,
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajek
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

TALAI

INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIAK 943 143323
Ortega y gasset, 1

Galderak errazak, erantzunak zailak?

ADIMENAK GAINEZKA egin eta inkestarako galderarik gabe gelditu ginen. Zuengana jotzea erabaki genuen., hurrengo zenbakietan inkesta egin ahal izateko. Norbaitek alferrak garela pentsatuko du. Libre omen da pentsatzea...(seguru?) Kanean gora kanean behera genbiltzala lau gazte hauekin egin genuen topo. Zumaiar gazte jatorrak (neskak, hauek baino hobeak ez dituzue kanpoan bilatuko!! Ez horixe!!). Laguntzeko prest zeudela esan ziguten. Pena emango genien, nonbait. Beno, kontua da egin geniola galdera: "zer galdeuko zenuke inkestan? "



Aitor Sosa

Zenbat diru gastau dezu Gabonetan?

Ordu erdi bat eman zuten pentsatzen. Izan ere, hain da galdera zaila!! Halako batean hasi ziren erantzuten. Ea Realak Liga irabaziko duen, Prestige-n fuela zabaltzearen errua nork duen, Gabonetan zenbat diru gastatu den, zein den DJ faborittoa....

Fernando Amezketarrak behin esan omen zuen galderak errazak direla eta erantzunak zailak.

Lehenengoa, tira, ez da hain aldebresa. Bai edo ez. Ez dago beste aukerarik. Hori bai, bat edo beste ikusten dut galdera hori egin, eta erantzunean Realaren taktika azaltzen...

Bigarrena ere ez da hain zaila. Gainera, erantzunak bat baino gehiago izan daitezke: Fraga, Aznar, Cascos...PP azkenean. Hainbeste ganoragabe izanda bat esatea ez da hain lan zaila. Behingoagatik ez da euskaldunon errua izan. Eskerrak!!

Hirugarrenari erantzungo lioketen artean, denek edo ia denek haxe erantzungo lukete: asko. Ba, jakinaren gainean zaudete, hurrengoan gutxiago gastatu.

Azkeneko galdera litzateke, akaso, zailena. DJ gustukoena zein den galdetuz gero, askok haxe erantzungo lukete: zer da DJa?

Ba horixe. Hala ere, hurrengo galderak egiten ditugunerako baduzue erantzuna pentsatzeko aztia. Gu beti zuekin pentsatzen...

Hori bai, Fernandoren teoria hura ez dakigu oso zuzena den. Gure kasuan, behintzat, hankaz gora bota dugu.

Barkatu al digu!!

Tapaia
Zabala

Erribera Kalea 20750 ZEMAILA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SAION
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3

943 860151

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1

Tel. 943143505



alvoa-se!


baleike

Kerten gabeko paela

ETA HIRU ASTE Gabonen aitzakian bapo pasa ondoren, hemen gara berriz. Kolpe zorririk jo gabe pasatako ordu guzti horiek (pentsa zenbat! $24 \times 7 \times 3 = \text{uff !!}$ Gehiegi), nere mahai gainean pilatu duten paper-lan mordoari ekin beharrean ikusi dut neure burua. Eta ikusi dut neure burua orain dela hiru aste baino gizenago, potzoloago, narratsago, utziago... bizarra mozteko ere lainezarekin (ez dakit zuei, baina niri espilu aurreko atxur eta apardun minutu horiek amaigabeak iruditzen zaizkit). Eta gibela bistan ez dagoelako, bestela a ze eskandalua! Finean, bueltako lehen aste honetan trapu zahar bat eginda nagoela.

Pentsa nola diren gauzak, erropa garbitu berriak lehortzeko ere eguraldi taxuzkorik ez dagoela. Baleiketarrok, itzuli naiz Lisboa epelaren ustean, eta esaerari muzin eginez, erdiak ez du ustela irten, ez. Hemengo hotzarekin usteldu beharrean kategorian mantendu baita! Alajaina! Aspaldiko urteetako asterik hotzena da hau, bufanda eta artilezko txapelak nonahi, jaka potoloak, zopa beroak... eta okerrera da etxeratzean ez dela ezer aldatzen! Hemengo etxe askok eta askok ez baitu berogailu sistamarik, ezta sistematizatu gabeko oinarritzko berogailu txiki eta xinplerik ere. Anaiarekin gogoratu naiz, hark hotza ez dela existitzen baitio beti, alegia beroa dela feomeno naturala, eta hotza "bero-falta" dela. Já! Gonbidatuko nuke nik egun batzuetarako. Caralho, a ze hotza!

Bizi da lagun bat justu teilatupean izaten diren etxe horietako batean. Etxean astebetetz bakarrik zenez, afaltzera gonbidatu gintuen, ea pasadan-edo etxea berotzen genion. Hotza zen berriketagai. Txerri txuletak prejituta edo labean egingo genituen erabakitzen ari ginen bitartean, zer bururatuko eta... BA bai, labea piztu eta irekita utziz gero sukaldean ti-ta batean berotzen deskubritu genuen. Hori bai, ateak ondo itxi, eh! Honela behin gure arima berotuta, txerriarenarekin hastea pentsatuta, txuletak barruan sartuta itxi genuen labea.



Patatatxo batzuk laguntzeko? Ados. Badakizuenok badakizue. Ikasle pisuak Lisboa edo kontxintxinan izpiritu eta estilo bertsua dute. Bai ezta? Ba kasu honetan zartagiak ez zuen kertenik. Zer egingo diogu ba!

Zer egingo diogun? Ba, gutxienez etxejabeari paelarekin belarrondoko bat eman. Gutxienez. Ez baitakite holako etxeak alugatzean, ikasleone osasuna eta "integritate fisikoa" zenbateraino jartzen diren kolokan. Honetan gaizkiesaka patatei buelta eman ezinean nenbilenean, non esaten didan lagunak: uste dut gasa... Bai, gasa kaput!

Ba han jatsi ginen gure pisura (etxepe berean bizi garenari eskerrak!) irailean hasi eta oraindik obretan diren eskileretan barrena, kerten gabeko paela beroari esku trapuarekin eutsi ezinik. Eta halako batean afaldu genuen: abarketa zolen moduko txerri txuletak (gogoratzen behera jaitsitakoan, zer utzi genuen labean?), oliotan egositako patatekin. Afalostean ordean berriz hotza, dardarak... asteburua pasa eta iritsi da astelehena. Gaur. Mahai gaineko tontorrari ekiteko asmoz. Joan naiz sukaldara eta argirik ez, komunean ere ez, ezta sarreran ere... esaten nuen bai nik, buzoiko karta urdin ura ez zela parte honekoa. Argiaren faktura ordaintzeko azken eguna duela astebete pasa zen! Neu neroni bai kirtena galanta. Portugesez? Caralho!

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentu

Ohizko tratamenduez gain:

- Laser bidezko depilazioa
- Mikropigmentazioa
- Tatuajeak

CORO PRIETO
Esteticista

Bonifazio Etxegarai plazatxo a z/g Tel. 943 861322

Hurrengoan bai!!

HAUTESKUNDIAK DATOZELA-ta ez pentsa hauteskunderietan hasi garenik. Ezta gutxiyo're. Azkeneko Baleiken baten batzuek erronka gorra jarri ziuten: uainguan, urtarrilekuan orri hau idazteko.

Ba, hementxe gatoz, zintzo demoniyo enkargua itea. Hori bai, gu hain zintzuak izanik ez'teu gogor erantzungo. Hortaz, lasai eoteko mouan'tzeate T... eta konpañia. Ez gea izenak ematen hasiko. Beayek badakiye earki asko zein dian. Guk ez 'teu beayek in 'tzuen ingo: izenak eman eta lasai asko geldiu. Ta hori ez'ta okerrera. Ba al dakizue ze in'tziguen? Gezurra esan!! Beayek e'tziala esan eta holakuak!! Eskasa behar du pertsonak!! Kanpotik jakin genun .

G...ta konpañia, uaingoz lasai eoteko mouan tzeate. Gabonak izan diala-ta, ez 'teu denboak izan mezi dezuen erantzuna bezelakua prestatzeko. Jan, ean...eta bizi!! Holakuak izan dia gure Gabonak. Zuenak 'e bai, ezta? Ez lo hartu halare, J.... Gutxiyen espero'zuenian zas!! Orduan izango'ia kontuak! Igual telebistan'e ateako zeate. Eta ez batian bakarrik. Eskaparatze osoko telebistetan. Lagako 'iguk , ezta? (eskaparatiaz ai gaituk)

Antzemango zenioten xuabe-xuabe ai geala. Estrategia, to, estrategia. Gu ez gea Bush artaburu eta segapoto hori bezalakuak. Horrek di-dau in nahi du dana. Gainea, kontrayuan izena're hitzetik hortzea erabiltze'u. Egunero, aizue, egunero. Guk ez , guk beste taktika bat dakau. Hamar defentsa atea, ta gutxiyen espero'uenian, danba. (G...k earki daki hori, fubola ikaragarri gustatzen' tzaio-ta) .Baietz G....? Abezedayo erdiya pasata aurrenako letra ezin ahaztu ba. A....re badia, bat baino geyo, gainea. Bat i..... da. Bestia f..... (ofiziyuaz ai gea, ez gaiki pentsau). Zuekin ez gaude ahaztuta, ez pentsa!! Izango' a zoeze zuentzat'e. Errepaso zabal honekin bukatzeko bada beste bat. Hau da



Bandua're jo ditek. Daoneko herri guztiyak zakink Baleiken idatzi deula.

danetan espabilatuena. Abezedayoko letra batekin konforme ez, eta bi hartu. Uain ez'teu esango ze letra dian, bestela igarri ingo'zuelako zein dian. Akabo gure estrategia. Ba hoixe, ai geala terrenua prepaatzen. Uainguan xuabia junda, baina HURRENGUAN BAI. Hurrenguan ezker eskubi aztinduko diteu bazterrak, CQC!! N..S....en partetik eskumiñak danai!! Moztu eta txanda.



Tel. 943 860000

ERROTA

OPIL-OKINDEGIAT

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Arantza Aramendi

EGUZKI

G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea

943 86 22 65 - 609 46 56 37

Ordu t'erdiko ametsa



PARTIDA HASI aurretik San Mames futbol zelaiko inguruak lepo daude. Tabernak gainezka, tabernetatik kanpo ere jende ugari. Ikusmina ikaragarria da. Ez da gutxiagorako, Euskal Herriko futbol selekzioak partida jokatu behar duelako Mazedoniako selekzioaren aurka. Urteroko zita futbol zale euskaldunontzat. Amets egiteko ordua. "Ea datorren urtean partida ofizialak jokatzen uzten diguten" pentsatzen dute baikorrenek. "Datorren urtean etxetik kanpo partidaren bat jokatuta gustura" esaten dute hain baikor ez direnek. Ikurrinak, euskal selekzioaren kamisetak, lepokoak. Haur, gazte eta heldu. Neska eta mutil. Denok ametsa den helburua noiz beteko irikitan.

Partida hasteko hiru ordu laurden falta direnean sartu gara zelaira. Ikusgarria da San Mames. Katedrala. Euskal selekzioak txapelketa ofizialetan parte hartzeko bedekazioa falta, ordea. Ia-ia beteta

dago, dagoeneko. Giro jatorra. Inguruan euskaldunak ditugu, bizkaitarrak. Elkarrekin tertulian ari garen bitartean, Mazedoniako futbol jokalaria beroketa lanak egiten hasi dira. Txaloak beraientzat. Zelaiaren beste aldetik Lekeition aurtun izango den Ibilaldia antolatuko dutenak atera dira pankarta baten atzean. Txaranga eta guzti. Beraien ikurra izango den balea ere badator. Gajoa nahiko galduta dabil, batera eta bestera. Badirudi ez duela ikusten. FIFA, Nazioarteko Futbol Federakuntzakoak bezainitsu dabil. Itsua behar duelako izan, Euskal Herrian gure selekzioaren alde dagoen gizartearen gehiengoak ez ikusteko. Itsua eta gaiztoa. Gaiztakeriaz betea dagoelako ezezkoa emateko ipini duten aitzakia. Nonbait, estatu ez diren Herriek ezin dezakete txapelketa ofizialetan parte hartu. Ez genehien Eskozia, Gales, eta Feroe irlak, besteak beste, estatu direnik. Bejondeiela!! Gu

beti bezala baztertuta. Izkina batean. Aldameneko herriko kakamokordoa bezala. Inuzentetzat hartzen gaituzte. Eta ez da Euskal Herria eta Mazedoniaren arteko partida inuzente egunean jokatzen delako. Balearen ibilera baldarrak sortutako gogotak lagata aldageletarako bidera begira ari gara. Handik atera behar dute berandu baino lehen gure jokalariek. Hemen datoz, beroketa egitera. Mendieta, Xabi Alonso, Etxeberria, Arantzabal, Rekarte, Karanka, Alkiza... Ederra taldea. Ebrotik beherakoei astindu ederra emateko moduko taldea. Baita Pirinioetatik harantzakoei ere. Ez uzten, ordea. Jokalaria zelaian ikustearekin batera jendea saltoka, oihuka hasi da. Hunkigarria. Zirrargarria.

Euskaldunon gustuko ohituretako bat errespetatuta, behar baino beranduxeago hasi da partida. Ordu eta erdi dugu amets egiteko. Amets zuri, gorri eta berdea. Berandu hasi bada ere, zoritxarrez ametsaren iraupena ez da luzatuko. Ordu eta erdi. Ez gehiago, ez gutxiago. Katedralako erlojuaren orratzak gelditzerik balego... Alferrik da. Ordu eta erdi pasata esnatu egin gara. Esnatze gazi gozoa. Gozoa Euskal Herriko selekzioa jokatzen ikusi dugulako. Gazia urtean behin bakarrik izaten delako, eta ez txapelketa ofizialetan. Urtebetez esna jarraituko dugu, datorren urtean Gabon garaian berriro ere ametsetan hasi arte. Edo lehenago? Ametsak...




Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385

B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



GAZTEEN ERAKOPA

ZALLA
Taberna - Erreteria

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

Euskaraz saltoka

ZUMAIAKO KIROLDEGIAN egin zen bigarren Saltoka aerobik maratonia. Urola Kostako Udal Elkarteak antolatu zuen *Kirola Euskaraz* programaren barruan. Jende asko aritu zen kirol hori egiten. Guztira bi orduko lana izan zuten. Osasungarria da dudarik gabe kirola egitea. Eta euskaraz bada hobeto.



Bistan denez, aerobik egitea neskei mutilei baino gehiago gustatzen zaie.



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAI A MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 943 143143

ILEAPAINDEGIA



San Telmo, 12
Tel. 943 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

GARAI BATEKO NEGUAK...

NEGUA. EGURALDIKO igarleek elurra egingo duela ez duela egingo esaten dabilta komunikabideetan, eta gu bitartean zain ea zer egingo ote duen. Garai bateko istorio laburrak bildu ditugu. Hona hemen horietako zenbait:

Antziñean neguak oso gorak izaten zian, urtero izaten zan elurra. Orduan negua negua, primabera primabera eta udara udara izaten zian, normalak zian ez oain bezelakuak. Gure garaian, elurra, izotza...ta gaiñere okerreña izaten zan izotz beltza izaten zanian, oso txarra zan ikaragarritzkoa, oain ez dao holakorik.

Sesentaidoseko eta sesentaitreseko negua ikaragarritzkoa izan zan. Etxean zian kañeixak izoztu iten zian ta ur gabe geratzen giñan, orduan San Juan itturitik ekarri behar izaten genun. Etxeko ura izoz-

tu iten zan, ta geo ondo jartzeko, kañeixak, itten zian lastuakin bildu kañeixak pixkanaka-pixkanaka bere onea jartzeko, baiña askotan lertu iten zan ta orduan fontaneruari deitu behar izaten zikon, konpontzeko. Gau guztian iturria azkenengo tantanak erortzen uzten genun, gabian kañeixak ez izozteko esperantzakin. Etxeetan etzeon kalefazi-yua, etxe pribiligiuetan bakarrik. Etxea ekonomikarekin berotzen genun, ikatzakin iten zen sua.


Eskolan berriz, estufa txiki-txiki bat geneukan, serrañezko estufa, etzun batere berotzen ta haizia bera jotzen zunian gela dana kiaz betetzen zan, oaingo neguak ez dia ezer garai hartako neguekin konparatuta.

Erriak sendatzeko etxe guztietan eoten zan botika elurrarekin



Zumaia ikusiko al dugu berriro ere elurtuta?





Noizkoa ote da argazki hau?

egiña, botila batian sartzen zan oliyo oliba, botila erdiraño, ta bestia elurraikin bete ta hura gordetzen zan urte osoan errien zauriyak sendatzeko, aspaldiko urteetan ez da iten, gutxitan iten duelako elurra.

Elurra zeonian ez esneik ..., ta ogiya eskerrak Zumaian iten zala. Baserritarrek etzian jeisten, orduan astoetan jeisten zialako, ta elurraikin ezin tzuten. Ta batzako gauza guztiak izoztu iten zian; loriak, azak..., dena.

Orain Leon, Soriako elurteak entzuten ditugunian, gure gazteetako denborekin gogoratzen gara., ez giñan inkomunikatuta geratzen baiña...

Gu geneukan erroa ere ez dira oain bezelakuak, abrigo mehe bat ta guantiak juxtu-juxtu, orain dauden gauzak edukita eskiatzen ikasiko gendun.

Elurra iten zunian oso gutxi ateratzen giñan kalera ta eskolara ez giñan juten, izan ere elurra kentzeko etzeon ezerrez, palakin kentzen zuten bide pixkat iteko. Izotz beltza zeonian oso zaila zan kentzia, asko kostatzen zan kentzia, orduan negua negua zan. Urtaro bakoitzean in behar zuena iten zun.

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

Auto-konponketak
ELKAR
Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01

PEUGEOT

dekorazioa

ALBERDI

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261

Alberdi
Gizonezkoen moda

Erribera kalea, 6
Tel. 861155

INMOBILIARIA

Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

ileapaindegia

IZETA

Urumea, 6 Tel. 943 862083

LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6

taberna
JUSTA
eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

Bi urteko geldiuenearen ostean, Seattle-ko boskoteak "Riot Act" diskoarekin egin du bere saiakera berria

TONU TRISTE ETA intimistago batean, azken diskoetan landuriko kantu lasaien nagusitasunari jarraipena eman nahi izan diote; garai bateko grunge estiloaren erreferentzi izatetik urrun, rock-aren eremuan mugitzen direla argi uzten dute lan honekin.

"I am mine" abestia aukeratu zuten lehen single gisa, sinplizitatez, kantu eder bat egiteko parametroak markatzeko gai direlaren erakusgarri. "You are"-n, berriz, soinu berriak esploratzen dira; kitarren laguntzaz, hainbat prozesu elektronikotatik pasa ostean, giro etereoago bat bilatzen dute, baliabide berrien bitartez berrikuntzarik sor daitekeenaren adierazgarri. "Save you"-k ere momentu ederrak eskaintzen ditu, base erritmikoa eta ahotsa bakarrik bateratzen diren unea kasu. "Ghost"-ek, aldiz, Pearl

Jam-en garairik energikoenak gogorazten dizkigu. Bukaerarako sorpresarik ere bada, "ARC" kantua adibide, non kantu indioen printzak somatzen diren.

Letrei dagokienez, izaera helduago eta konprometituago bat azaltzen digute, baita ironiarik ere, "Bushleader" abestiaren kasuan bezala. Beisboleko talde txikiei deitzeko erabiltzen den hitza den arren, Bush izenarekin duen antzekotasuna erabiltzen dute egungo lehendakari estatu batuarrak kritikatzeko. "Love boat captain"-ek, berriz, Danimarkako Roskilde Festival-ean hildako jarraitzaileak oroitzen ditu. Eddie Vedder taldeko abeslariak "dibertitzeko daudela eta ez deusezteko!" gogoratu zuen. Egun, taldeak gogoratzen duen tragediarik handiena izaki, kantuak zera dio:

It's an art to live with pain?
Mix the light into grey
Lost 9 friends well never know
2 years ago today
and if our lives became too long,
would it add to our regret?

Arte bat, minez bizitzeko al da?
Argitasuna grisera pasa zen
Ezagutuko ez genituen 9 lagun hil ziren

Gaur dela 2 urte
Eta gure bizitzak oso luze bihurtzen badira,
Guzti hau gure atsekabera gehituko al da?

(Eddie Vedder, 2002)



Disko honek egungo rock esparru internazionalako hiru izen handiri egin die omen, hirurak hilak dauden honetan: John Entwistle (The Who-ko baxujolea), Dee Dee Ramone (Ramones taldeko baxujolea) eta Ray Brown.

Bukatzeko esan, "Ten" (beraien masterpiece edo maisulana) eta "Vs" eta gero, seguruenik beraien diskorik boro-bilena dela.



"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 066/02



MAGELLAN "Hundred year flood"

YES, JETHRO TULL, Genesis etab.... bezalako taldeak gus-tuko dituztenentzat, hau da, rock sinfoniko, progresiboa eta fusioa maite dutenentzat kontuan hartzeko lana dugu Mage-llan-en azken hau. Ederki borobildutako lan honetan, 70. hamarkadako musika gordin-gordinik aurkituko dugu, garaia pasako ez bailiran. Instrumentazioan maisu, alde ezberdinetatik aztertu arren bikaintasuna besterik ez du. Lan kontzeptual honek bi izen handiren kolaborazio aipagarria izan du: Tony Levin eta Ian Anderson.



ROLLING STONES "Forty Licks"



GABONETAKO espirituari atxikiaz eta izenaren fama eta segimen-duari helduaz, diskoetxeek garai bateko eta egungo talde erraldoi eta mitifikatuen kontura urteko plus-etako bat jaso nahi dute. Noski, hau guztia errekopilazio sorta handien formulaz: The Who, Leonard Cohen, Eric Clapton, Santana, Chicago, Eagles, Fleetwood Mac, David Bowie...

Gauzak horrela izan arren, aipamen berezi bat merezi dute guz-tiek, baita Forty Licks honek ere. Zalantzarik gabe Rolling Stones tal-dearen errekopilazio polit bezain mardula dugu. Lan bikoitz honek DECCA eta EMI-VIRGIN diskoetxeekin argitaraturik kantuak bil-tzen ditu, besteak beste: "Gimme shelter", "(I can't get no) Satisfac-tion", "Jumping Jack Flash", "Sympathy for the devil", "Ruby Tues-day", "Honky tonk women", "Paint it black", "Brown sugar", "Angie"...

...

Taldearen erreferentzia orokor bat izateko benetan lan baliogarria.



TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089

Chihiro euskaraz ariko zaigu

CHIIHIRO NESKA apetatsu eta burugogorra da, hamar urtekoa, unibertso guztiak bere nahietara makurtu behar duela uste duena. Gurasoek -Akiok eta Yugok- etxez aldatu beharra daukatela esaten diotenean sutan jarriko da eta ez ditu bere sentimenduak ezkutatuko.


Familiak alde egiten duenean, Chihirok gogor helduko dio lagunak opari egindako lore-sortari, bere oroitzapen guztiak esku horretan balitu bezala. Etxe berrira doala, familia bidean galdu eta kale itsu misteriotsu batera iritsiko da. Han eraikin gorri erraldoi bat dago, erdialdean bukaerarik gabeko tunel batekin, aho izugarri bat balitz bezala.

Tunel horretan sartuta, familia fantasma-herri batera iritsiko da eta han oturuntza ederra izango dute zain. Akiok eta Yugo gogotik jaten hasiko dira. Chihirok gurasoei begiratu die, nola ari diren jan eta jan; bat-batean, ordea, txerri bihurtuko dira. Nahi gabe, antzinako jainkoen eta izaki magikoen mundu batean sartu

dira, Yubaba maltzur eta gaiztoaren herrialdean.

Yubabak azalduko dio Chihirori kanpotarrak animalia bihurtzen dituztela, gero hil eta jateko. Zorigaitzeko patu horretatik ihes egitea lortzen dutenak, berriz, ezertarako balio ez dutela egiaztatukoan, hil egiten dituzte.

Zorionez, Chihirok aliatu bat aurkituko du: Haku misteriotsua. Zain daukan zorigaitzeko patua ahalik eta gehien atzeratzeko eta mundu bitxi eta arriskutsu horretan bizirik irauteko, zerbaitetarako balio duela erakutsi beharko du, lan egin behar izango du. Chihirok ahaztu egin beharko du ohiko nagikeria, eta, horrekin batera, beste hainbat gauzari ere uko egin beharko die: gizatasunari, oroitzapenei, izenari...



**"Chihioren
bidaia"**
(Sen to Chihiro no
kamikakushi,
2001, Japonia)

Zuzendaria eta gidoi-
laria: Hayao Miyazaki

Musika: Joe Hisaishi

Otsailak 6, osteguna,
22:15ean (euskaraz)



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Drama maitagarria?

ANTONIAK ETA MASSIMOK hamar urte baino gehiago dar-matzate ezkontuta. Etxe polit batean bizi dira, Erroma kanpoal-deko bizitegi batean, zoriontsu. Bat-batean, Massimo hil egingo da zirkulazio-istripu baten ondorioz. Antonia lur jota geratuko da eta zaindu egin beharko dute Veronica amak eta Nora neska-me filipinarrak. Antoniak ezingo dio oinazeari ihes egin: ez da lanera joango, lagunak eta lankideak baztertu egingo ditu eta bere baitan itxiko da.

Horrela jarraituko du, harik eta jakin arte Massimok, zuela zazpi urtetik, beste pertsona batekin harremanak zituela. Perso-na hori zein zen jakin nahi eta horrek itxialditik ateraraziko du. Abizen baten eta helbide baten arrastoei jarraituz, Massimoren bizitzan hain garrantzitsua zen pertsona horren etxea zein den jakingo du Antoniak. Pertsona hori langile-auzo batean bizi da, eta ez da emakumezkoa, Michele izeneko gizonezkoa baizik.

Ikertu eta ikertu, Anto-niak jakingo du Michele,

inguruan, lagunez osatutako benetako "familia" daukala, bere senarraren bigarren familia ere bihurtu zena. Bi familia horiek, ordea, oso desberdinak dira: Antonia eta Massimorena unitate "itxia" zen; Michele eta Massimorena, berriz, "irekita" zegoen mundura, eta azken horretan gizon eta emakumeak ez dute bereizketarik, ez sexu-orientazioarengatik, ez adinarengatik, ez arrazarengatik, ezta gizarte-mailarengatik ere. Pixkanaka, Anto-nia familia alternatibo horren erdigunean sartuko da, ia-ia Mas-simoren ordezkoa balitz bezala. Aldi berean, Micheleri bere amodio premia erakutsiko dio, senarra hilda umezurtz geratu bai-tzen. Hainbat esperientzia izango dituzte, dramatikoak eta komi-koak, tragikoak eta ironikoak, eta pixkanaka, Antonia eta Miche-le elkarrekin maitemintzeko aukera gero eta errealeago egingo da.

"El Hada Ignorante"

(Le fate ignoranti, 2000, Italia)

Zuzendaria: Ferzan Ozpetek.

Gidoia: Gianni Romoli & Ferzan Ozpetek.

Fotografia: Pasquale Mari.

Musika: Andrea Guerra.

Aktoreak: Margherita Buy, Stefano Accorsi

Otsailak 20, ostegu-na, 22:15ean



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

IKASTAROK

- PINTURA TAILERRA: Foronda kultur etxean; astelehen eta asteazkenetan 18:30etatik 20:00etara; astearte eta ostegunetan 15:00etatik 16:30etara. Izen ematea Forondan (943861056).
- KONTROL MENTALA: otsailaren 15etik martxoaren 22ra. Larunbatetan 10:30etatik 12:00etara. Dohainik.
- ARDO DASTAKETA. Larunbatetan, martxoaren 15, 22 eta 29an, Foronda kultur etxean. Matrikula: 10 euro.

- Otsailaren 4tik 18ra: Medicus Mundiren erakusketa "YANA CURI, paradisu zauritua" (Turismo bulegoan).
- Martxoaren 7tik 9ra: Txirrindulari elkartearen argazki erakusketa (25. urteurrena).
- Martxoaren 11etik 23ra: Pintura tailerreko ikasleen erakusketa, irabaziak "Kongolagun" proiektuarentzat bideratuko dira.
- Apirilaren 12tik 20ra: BAINIKAKO erakusketa.

22:15etan zineforum saioa
"TXIHIROREN BIDAIA" (Hayao Miyazaki).

- 7, ostirala: 22:00etan antzerkia Aita Mari aretoan, TXALO taldearen "PALABRARISMOS".
- 8, larunbata: IRTEERA NAFARRORA: Ardo Museoa + OLITEko Gaztelua UXUE ko gaztelua eta Santutegia. XABIERko Gaztelua. Izen ematea Turismo Bulegoan (943143396) eta Foronda kultur etxean (943861056), urtarilaren 27tik otsailaren 5era.
- 9, igandea: Aita Marin, 17:00etan haur zinema: "AVENTURAS EN ALASKA".
- 10etik 16ra: ingurumen astea, ikus egitaraua.
- 14, ostirala: Aita Marin, arratsaldeko

7etan, Julene Azpeitia literatur lehiaketaren sari-banaketa eta Angel Alkainen saioa.

- 16, igandea: Aita Marin, 12:00etan haur antzerkia BEDEREN 1 taldearen "TITI BILI TI".
- 16, igandea: Aita Marin, 17:00etan haur zinema: "LILO Y STICH".
- 20, osteguna: Aita Marin, gaueko 22:15etan zineforum saioa "EL HADA IGNORANTE" (Ferzan Ozpetek).
- 23, igandea: XIX. Herri-krosa. Umeena 9:30etan eta helduena 10:45tan izango da. Informazio gehiago Lubaki kiroldegian (943862021).
- 23, igandea: Aita Marin, 17:00etan haur zinema: "PASTEL MAGIKOA".
- 28tik martxoaren 3ra: Inauteri asteburua. Ikus egitaraua.

ERAKUSKETAK

Alondegi Zaharren

- Otsailaren 4tik 17ra, Natur taldearen erakusketa, "LURRA".

BESTELAKOAK OTSAILA

- 2, igandea: Aita Marin, 17:00etan haur zinema: "TXIHIROREN BIDAIA".
- 6, osteguna: Aita Marin, gaueko



Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521



AUTOS ZUMAIA
Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



Kresala
Taberna
Julio beobide 3, tfno. 615 70 25 23



Galdona
burdindegia
Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330



GANBARA
Taberna
juan belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57



JATETXEA LUBAKI
Baselri Auzategia, 15 Tel. 943 14 34 84 ZUMAIA



Maite
ileapaindegia
amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278



ekin INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
TELEKOMUNIKAZIOAK
/elektrizitatea, s.l.
Erribera kalea 18 Behe TH/Fax: 943 143097
20.750 Zumaia ekin@ekin.com
Instalatzaille/banatzaille ofiziala
CANAL+ via CANAL DIGITAL



ertz informatika
tresna digi-
internet
scanner
Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95
Datalac COMPUTER



Denda:

Mendaro marínela, 1
tel: 943 86 11 17 • 943 14 33 46

Biltegia:

Juan Belmonte, 15
tel: 943 86 13 30

industriarako nahiz etxerako
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak

- Estudio Argazkiak
- Erreportajeak
- Errebelatuak
- Kamarak eta abar
- Markogintza



Profesionalak gara,
etor zaitez!